



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 11

54. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, zorpetzeari eta gainerako ordainketa-betebehar irmoei aurre egiteko planaren inguruko politika orokorrari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da finantza ditzan 51. jarduketaren barruan –160 erepidearen Tuterako sarbideak– dagoen biribilgunea egiteko behar diren obrak. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014. urtean jarrai dezan osorik finantzatzen Gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonak edo Gizarteratzeko eta laneratzeko eta enplegugarritasuna hobetzeko laguntza jasotzen dutenak kontratatze programak. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzeko orrietan ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak” izeneko kontusaila exekuta dezan. Pedro Rascón Macías jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Kataluniako eta Estatuko gobernuei haien arteko elkarrizketa politikorako gonbidapena luzatzen baitie. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Osasuneko Batzordean Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzuari buruz onetsi zen mozia betetzeari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (9. or.).
- Galdera, Hezkuntzako Departamentuak Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan sortu den egoerari buruz duen asmoa jakitekoa, behin 2014-2015 ikasturterako aurre-matrikulazioko datuak ezagututa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak auzo-komunitateek pairatzen duten berankortasunari begira egin dituen jarduketei buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (10. or.).

- Galdera, herritarrentzat ireki den “parte-hartze prozesu”ari buruzkoa, Nafarroako Gobernuaren webgunean erreforma fiskalari buruzko ekarpenak egin ditzaten, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako eskola-mapa berriaren prestaketari buruzkoa, Pedro Rascón Macías jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren aktiboak eta pasiboak Banca Cívica alde banatzeko erabakiari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak epigrafe bakoitzean 2005. urtetik hona hartu dituen ebazpenei buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak Komunitaterako adostu duten gehieneko zorpetze-indizeari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (14. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak Baztan-Bidasoa osasun-garraioaren enpresa kontzesio-hartzailearekin duen zorrari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (15. or.).
- Galdera, anbulantziek, asistentzialek zein ez asistentzialek, duten balio-bizitzari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (15. or.).
- Galdera, defizit helburua ez betetzeak zor publikoa erostean interesen ordainketan dituen eraginei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea ez baimentzeko arrazoiari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, zama orokorretarako ekarpen gisa Estatuko Administrazioari ordaindu beharreko zenbatekoa, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan agertzen dena, negoziatzeko prozesuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Estatuko Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa ordaindu beharreko zenbatekoa berrikusi eta negoziatzeagatik 2014ko gastua murrizteari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Tuterako eskualdean osasun-garraioaren zerbitzua emateari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (19. or.).
- Galdera, enpleguko politika aktiboetarako bideratzen den finantziarioari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (19. or.).
- Galdera, CEN, UGT eta CCOO 2014ko Enplegu Planaren kudeaketa- eta erabakitze-organoko partaide izateak sortzen duen interes-gatazkari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (20. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, zorpetzeari eta gainerako ordainketa-betebehar irmoei aurre egiteko planaren inguruko politika orokorrari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, zorpetzeari eta gainerako ordainketa-betebehar irmoei aurre egiteko planaren inguruko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Zorpetzeari eta gainerako ordainketa-betebehar irmoei aurre egiteko planaren inguruko politika orokorrari buruzko jabeldura, barne hartzen dituen bai zorpetze gisa legez aitortzen dena, bai itzaleko bidesari-kontratuetatik edo bestelakoetatik heldu diren betebeharrak, Nafarroako Foru Komunitateari –erkidegoko administrazioari nahiz gainontzeko sektore publikoari– eragiten diotenak.

Iruñean, 2014ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da finantza ditzan 51. jarduketaren barruan –160 errepidearen Tuterako sarbideak– dagoen biribilgunea egiteko behar diren obrak.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita finantza ditzan 51. jarduketaren barruan –160 errepidearen Tuterako sarbideak– dagoen biribilgunea egiteko behar diren obrak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Sustapen Batzordean eztabaidatzeko.

Toki-sarea hobetzera bideratutako Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendarian onetsitako jarduketa ugarien artean dago 51. jarduketa, NA-160 errepidea (Tuterarako sarbideak). Jarduketa hori Cintruénigo-Corella errepidearen Tuterako sarbideak hobetzean datza. Guztira kilometro bat hartzen du jarduketak, bi milioi euroan dago baloratu-ta, eta 2018an egitea aurreikusten da.

Gaur egun bada urgentzia handiagoz hobetu beharreko beste puntu bat: eremu horretako biribilgunea, Tuterako Udalak 2014an eginen duena eta 200.000 euro inguruko kostua duena. Arestian aipatutako obra horietan sartuta dagoen jarduketa bat denez gero, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du finantza ditzan Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendarian (2010-2015) aurreikusitako 51. jarduketako biribilgunea egiteko beharrezkoak diren obrak –NA-160 errepideko Tuterarako sarbideak–, plan horretan sartutako eta aurreikusitako jarduketa bat izategatik.

Gastu horri ekiteko beste aurrekontu-kontusailik ez balego, Nafarroako Gobernuaren 2014rako luzatutako aurrekontuetan dagoen “Luzapen-funtza” izenekoarekin egin dadila iradokitzen dugu.

Iruñean, 2014ko apirilaren 1ean

Eleduna: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014. urtean jarrai dezan osorik finantzatzen Gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonak edo Gizarteratzeko eta laneratzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntza jasotzen dutenak kontratatzeoko programak.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2014. urtean jarrai dezan osorik finantzatzen Gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonak edo Gizarteratzeko eta laneratzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntza jasotzen dutenak kontratatzeoko programak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatzeko:

Egoera ekonomiko larria ikusita, Nafarroako Gobernuak martxoaren 25eko 286/2013 Foru

Agindua onetsi zuen iaz; horren bidez, zenbait neurri ezarri zituen Gizarte Politiketako Departamentuaren bidez eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean, toki entitateei, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateei edo Nafarroako merkataritza-entitateei diru-laguntzak emateko, lan-kontratua egin ahal ziezaieten gizarteratze-errentak eta gizarteratzeko eta laneratzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntzak jasotzen dituzten pertsonen.

Halatan, lan araubideko kontratuen ondoriozko 6 hilabetetako soldata kostu guztiak finantzatzen ziren, bai eta kontratazio horrek berekin zekartzan Gizarte Segurantzako kostuak ere.

Jaso ditugun informazioen arabera, ez dira diruz lagunduko Gizarte Segurantzaren kostuak. Hori horrela, eta langile horiek kontratatzen dituzten erakundeen egoera ekonomikoa ikusita, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2014. urtean jarrai dezan osorik finantzatzen –soldatak eta Gizarte Segurantzaren gastuak– Gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonak, edo Gizarteratzeko eta laneratzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntza jasotzen dutenak kontratatzeoko programak, 2013an egin zuen modu berean.

Iruñean, 2014ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzatzeko orrietan ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzatzeko orrietan ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Azken urteotan, murrizketen politikekin eta lan-erreformaren aplikazio interesatuarekin koinzidituz, hainbat lan-gatazka gertatu dira zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten irabazi asmoko

enpresa pribatuen eta enpresa horietako langileen artean, beren lan-hitzarmenak behin eta berriro urratzeagatik.

Gatazka horietan parte hartzen dute Nafarroako Gobernuak, zeinak zerbitzuak kanpoan kontratatzen baititu, eta finantzatu; enpresa esleipen-hartzaileek, zeinek ezetza ematen baitiote lan-hitzarmenak aplikatzeari; eta langileek, zeinei soldata jaitsi eta izozten baitiete, eta lan-baldintzak okertu.

Egoera hori bizi izan dute azken urteotan anbulantzia-zerbitzuko nahiz ezgaitasuna artatzeko zentroetako langileek.

Argi dago zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresa pribatuetako langileak babesik gabe daudela Nafarroako Gobernuak eta zerbitzu horiek kudeatzen dituzten enpesez inposatzen dituzten murrizketen aurrean. Nafarroako Gobernuari dagokio enpresa horietako langileez arduratzea. Horregatik aurkezten dugu ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzatzeko orrietan ezar dezan enpresa esleipen-hartzaileek langileei dagokien sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna.

Iruñean, 2014ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak” izeneko kontusaila exekuta dezan.

PEDRO RASCÓN MACÍAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro Rascón Macías jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak” izeneko kontusaila exekuta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Pedro Rascón Macíasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2008ko ekitaldian, Nafarroako aurrekontu orokorrekin 306.250 euroko kontusail bat zeukaten, guraso-elkarteak eta haien federazioak finantzatzeko. Zenbateko hori murriztuz joan da, halako moduan non zenbateko hori 95.000 eurokoa baitzen 2012an –Legebiltzar honetan aurrekontu batzuk onetsi ziren azken ekitaldian–; alegia, % 69 txikiagoa.

Azken ekitaldiotako aurrekontu-betetzeek eragin dute bai 2011n bai 2013an euro zentimo bakar bat ere ez ordaintzea entitate horiei, nahiz eta, horretarako, kasuko aurrekontuan kontusail bat ezarrita zegoen.

Hezkuntza Departamentuaren 2014ko aurrekontu luzatuetan honako kontusail hau jasotzen

da: 425005421104819324200 kontusaila, “Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak”. Kontusailak 95.000 euro ditu esleiturik, baina orain arte ez da diru-laguntzen deialdirik egin, eta ez du ematen egiteko batere asmorik dagoenik.

Familien parte-hartzea funtsezkoa da eskola-arrakastari begira, eta Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna da parte-hartze hori sustatzea. Parte-hartzea ikasleen gurasoen elkarte bidez egiten da, zeinak, era berean, federazioen bidez artikulatzen baitira. Federazio horiek eginkizun garrantzitsua dute, bai gurasoen prestakuntzari dagokionez, bai gurasoak kasuko erakundeetan ordezkatzeari dagokionez ere. Horietako batzuek bide luzea egin dute gure erkidegoan –hain zuzen ere, 35 urtetik goitikoa–, eta argi dago finantzaketa egokirik gabe arriskuan dagoela beren biziraupena.

Legebiltzar honek 2013ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran parlamentari honek egindako galdera bati erantzunez, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak onartu egin zuen entitate horiek lan garrantzitsua egiten dutela eta departamentua haiei laguntza ematera behartuta dagoela.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala bete dezan 425005421104819324200 kontusaila –“Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak”–, esleiturik dituen 95.000 euroko zenbatekoarekin, eta, horrenbestez, urgentziaz argitara dezan Nafarroako Foru Komunitateko haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako gurasoen eta ikasleen elkarte federazioentzako laguntzen deialdia, eta halaber deialdia ebatz dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro Rascón Macías

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Kataluniako eta Estatuko gobernuari haien arteko elkarrizketa politikorako gonbidapena luzatzen baitie.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak gogoz egiten die gonbit Kataluniako Gobernuari eta Estatuko

Gobernuari eta haien parlamentuei, elkarrizketa politikoa erabil dezaten sortutako gatazkaren konponbiderako”

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasuneko Batzordean Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzuari buruz onetsi zen mozioa betetzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Osasuneko Batzordean Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzuari buruz onetsi zen mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Osasuneko kontseilari Marta Vera Janín andreari, Osasun Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Orain dela gutxi, Osasun Batzordeak mozio bat onetsi du Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa

ta zerbitzuari buruz, Nafarroako Gobernua premia-tzen duena:

– Tinko berma dezan egun dagoen Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzu publikoari eutsiko zaiola.

– Garbiketa zerbitzu publikoko lanpostu guztiei euts diezaien.

– Oraindik inauguratu ez diren C Pabiloiaren eta Larrialdietako eraikinaren garbiketarako kontratua bukatzen denean, Administrazio Publikoaren menpeko langileek egin ditzaten aipatu eraikin edo eremuen garbiketa-lanak.

– Halaber, Nafarroako Parlamentuak onartezintzat jotzen du garbiketa zerbitzu publikoan behin-behineko lanpostuen tasa % 85ekoa izatea, eta Nafarroako Gobernua premia-tzen du enplegu eskaintza publiko bat egin dezan, lanpostuak eta langileen egoera egonkortze aldera.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik mozio hori betetzeko? Baiezkoan, zer neurri hartuko ditu horretarako?

Iruñean, 2014ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Hezkuntzako Departamentuak Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan sortu den egoerari buruz duen asmoa jakitekoa, behin 2014-2015 ikasturterako aurre-matrikulazioko datuak ezagututa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako Departamentuak Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan sortu den egoerari buruz duen asmoa jakitekoa, behin 2014-2015 ikasturterako aurre-matrikulazioko datuak ezagututa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak dioenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, zehazten den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan 33 ikasleren aurrematrikulazioa izan dute 2014-2015 ikasturterako. Lerro oso bat bete da, beraz, eta egindako baremazioaren ondoren 5 ume geratu dira kanpoan.

Ikastolak 5 familia horiek ikastolan hartzeko asmoa dauka. Badu baimena bigarren lerro bat irekitzeko eta, kontzerturik jaso ezean ere, lerro hori berak ordaindu eta irekitzeko prestutasuna agertu du, kooperatibistek beren onspena eman diotelarik.

Hala ere, Hezkuntza Departamentuari asmo hori jakinarazi dioten arren, ez dute Departamentuaren aldetik erantzunik izan, eta familia horiek zein ikastola bera ezjakintasun egoeran daude.

Zer asmo dauka Hezkuntza Departamentuak Altsasuko ikastolan suertatu den afera honi dagokionez? Ikastolak bost familia horiek hartzeko eta, bere kabuz bada ere, lerro berri bat zabaltzeko aukera errespetatu egingo da?

Iruñean, 2014ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Gobernuak auzo-komunitateek pairatzen duten berankortasunari begira egin dituen jarduketei buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak auzo-komunitateek pairatzen duten

berankortasunari begira egin dituen jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 3an egindako bilkuran, Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen mozio bat onetsi zuen. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiaturik ez zuten zenbait jarduketa egin zituzten Nafarroako jabeen erkidegoen egoera ekonomikoa hobetzeko, finantza-entitateek erkidego horiekiko zorrak dituzten kasuetan.

Jabeen Erkidegoetako Berankortasunaren Behatokiaren estimazioen arabera, Nafarroako

jabeen erkidegoek 21 milioi eurotik gorako zorra metatu dute 2013an zehar –aurreko ekitaldian baino ehuneko 2,2 gehiago–. Zor horretatik guztitik, lau milioi euro inguru finantza-entitateei dagozkie, higiezinaren sozietateekin eta kudeaketa-entitate publikoekin batera.

Kontuan hartuta zor hori arazo-iturri gertatzen ari dela Nafarroako jabeen erkidego askotan, honako hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa egin ditu jabeen erkidegoek pairatzen duten berankortasuna dela-eta 2014ko urtarrilaren 3an onetsitako erabakiari dagokionez?

Iruñean, 2014ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, herritarrentzat ireki den “parte-hartze prozesu”ari buruzkoa, Nafarroako Gobernuaren webgunean erreforma fiskalari buruzko ekarpenak egin ditzaten.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, herritarrentzat ireki den “parte-hartze prozesu”ari buruzkoa, Nafarroako Gobernuaren webgunean erreforma fiskalari buruzko ekarpenak egin ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du herritarrek Nafarroako Gobernuaren webgunean erreforma fiskalari buruzko ekarpenak egite aldera ireki den “parte-hartze prozesua” dela-eta, zeina iragan martxoaren 21ean bukatu baitzen?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako eskola-mapa berriaren prestaketari buruzkoa.

PEDRO RASCÓN MACÍAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro Rascón Macías jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako eskola-mapa berriaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Pedro Rascón Macíasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Iragan martxoaren 6an, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak agerraldi batean adierazi zuen departamentuak gure erkidegoaren eskola-mapa berri bat egiteko asmoa duela.

Gauza jakina da hezkuntzako kontseilariak hori bera iragarri dutela azken urteotan, baina kontua da 1995ekoa dela egin den azken eskola-mapa.

Hori dela-eta, honako ahozko galdera hau egingen dugu:

Hasi al zarete prestatzen Nafarroako eskola-mapa berria gaur egungo eskolatzeko beharrezko arabera?

Baiezkoan, noizko aurreikusten da amaitzea? Ezezkoan, noiz aurreikusten da hasiko eta amaituko direla mapa egiteko beharrezkoak diren lanak?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro Rascón Macías

Galdera, Nafarroako Kutzaren aktiboak eta pasiboak Banca Cívica alde banatzeko erabakiari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren aktiboak eta pasiboak Banca Cívica alde banatzeko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariari, Parlamentuko batzordean izapidetzeko.

2014ko apirilaren 2an Ekonomia eta Ogasun Departamentuan egiaztatu ahal izan genuenez, Kontuen Ganberaren "Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrezki Kutzaren ikuskapen eta babesletza eginkizunei dagokienez izandako jarduna (1982-2011)" izeneko txostenaren 15. orrialdean esaten da -6. ondorioan, hain zuzen ere-: "Babesletza publikoaren arloan, Nafarroako Gobernuaren berriazko eskumenak honakoetan islatzen ziren, funtsean": besteak beste, "Nafarroako Aurrezki Kutzaren bateratze, banantze eta eraldatzei buruzko erabakiak baimentzea".

Adierazitako horrekin estu-estu lotuta dago 15. ondorioan esaten dena –17. orrialdea–: “ganbera honek aztertutako dokumentazioan (...) ez dago jasota, ordea, Nafarroako Kutxaren aktiboen eta pasiboen segregazioa, Banca Cívica-ren aldekoa, baimentzeko erabakirik”

Hauek dira galderak:

1. Ba al dago Gobernuaren erabakirik operazio hori baimentzeko?

2. Ezezkoan, Gobernuak uste al du, Kontuen Ganberak adierazitakoarekin bat, operazioa egin aitzin erabaki hori hartu beharra zegoela? Hipotesi horretan, Gobernuak inolako txosten juridikorik egin al du ez-betetze horren eraginei buruz?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak epigrafe bakoitzean 2005. urtetik hona hartu dituen ebazpenei buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak epigrafe bakoitzean 2005. urtetik hona hartu dituen ebazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren webguneak tresna bat dauka, Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordearen ebazpenak bilatzeko.

Atzo –2014ko martxoaren 27a– haren ataletako bakoitzean egindako bilaketa batean, honako ebazpen hauek azaldu ziren, jarraian adierazitako datak dauzkatenak:

1- Hitzarmen Ekonomikoa: 2013/11/07, 50/2012 Gatazka; 2007/04/04, 17/2007 eta 2008/04/04 Gatazka, 16/2007 Gatazka.

2- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ): 2012/10/27, 37/2011 Gatazka; 2012/05/17, 37/2011 Gatazka, eta 2008/12/16, 14/2007 Gatazka.

3- Sozietateen gaineko zerga: 2013/06/11, 45/2012 Gatazka; 2013/06/11, 44/2011 Gatazka; 2012/03/15, 32/2010 Gatazka; 2009/11/03, 19/2008 Gatazka, eta lehenagoko data duten beste zenbait.

4- Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko zerga: 2004/10/02, 2/2004 Gatazka.

5- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ): 2009/11/03, 18/2008 Gatazka; 2008/12/16, 12/2007 Gatazka; 2008/12/16, 10/2007 Gatazka, eta lehenagoko data duten beste zenbait.

6- Zerga bereziak: 2009/11/03, 11/2007 Gatazka.

7- Zenbait zerga: 2014/02/07, 52/2012 Gatazka; 2014/12/07, 46/2012 Gatazka, 21/2009 Gatazka; 2012/04/04, 15/2007 Gatazka, eta lehenagoko data duten beste zenbait.

Informazio horren azterketatik ondorioztatzen dugu oso gutxi direla Arbitraje Batzorde horren esku-hartzea merezi duten gatazkak, edo ez dela ematen bere ebazpenen gaineko gutxieneko informazioa baino.

Bestalde, informazio ugari argitaratu da hedabideetan, ez ordea Gobernuaren webgune ofizialean, Arbitraje Batzordeak bi gobernuen arteko talka-egoera ugari eta askotarikoetan esku hartu izanari buruz.

Horregatik guztiagatik, foru parlamentari honek honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari, idatziz eman dezan:

1- Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Bartzordeak, epigrafe bakoitzean, 2005. urtetik hona, hartu dituen ebazpenen zerrenda.

2.- Ebazpen horietako bakoitzaren kopia.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketeta Díaz

Galdera, Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak Komunitaterako adostu duten gehieneko zorpetze-indizeari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak Komunitaterako adostu duten gehieneko zorpetze-indizeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak erkidegorako adostu duten gehieneko zorpetze-indizeari buruz:

– 2013rako ezarritako gehieneko indizea.

– Nafarroak zer zorpetze-indizerekin itxi zuen 2013a.

Iruñean, 2014ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Osasun Departamentuak Baztan-Bidasoa osasun-garraioaren enpresa kontzesio-hartzailearekin duen zorrari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak Baztan-Bidasoa osasun-garraioaren enpresa kontzesio-hartzailearekin duen zorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Osasun Departamentuak zenbat zor dio Baztan-Bidasoa eskualdeko osasun-garraioaren enpresa esleipen-hartzaileari, ordaindu gabeko KPIren igoerak direla-eta? Noiztik heldu da zor hori?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, anbulantziek, asistentzialek zein ez asistentzialek, duten balio-bizitzari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, anbulantziek, asistentzialek zein ez asistentzialek, duten balio-bizitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Anbulantzien balio-bizitza –asistentzialena nahiz ez asistentzialena– Estatuko araudi bidez aldatu da; halatan, balio-bizitza hori zortzi urtekoa izatetik hamar urtekoa izatera igaro da orain. Gure ikuspuntutik, ezinbestekoa litzateke anbulantzia horien benetako egoera zein den ikustea, ibilgailu horien kalitatea ez dadin gainbehera etorri. Tes-tuinguru horretan, haxe jakin nahi dugu:

- Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka gaur egun osasun-garraio urgentea nahiz ez-urgentea ematen duten anbulantzien erabilera-egoerari buruzko plan bat egitea, alde batera utzita horiek zenbat urtez erabili diren?

- Balio-bizitzaren goiko mugan dauden anbulantzien kasuan –orain luzatu egin liteke muga hori–, arreta berezia eskainiko al zaie, horien erabilera-kalitateari dagokionez?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, defizit helburua ez betetzeak zor publikoa erostean interesen ordainketan dituen eraginei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, defizit helburua ez betetzeak zor publikoa erostean interesen ordainketan dituen eraginei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Parlamentari honek jakin nahi du ea defizit-helburua ez betetzeak zer ondorio dituen zor publikoa erosteko interesen ordainketan. Horien gainkostuaren eta inplikazio ekonomikoen zerrenda eskatzen dut, defizit-helburua bete izan balitz parametro horiek egonen liratekeen egoeraren proiektzio batekin konparatuta.

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Kutzaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea ez baimentzeko arrazoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea ez baimentzeko arrazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zergatik ez zuen baimendu Nafarroako Kutzaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea? Halaber, baimenik ez emate hori zer txosten juridikotan oinarritu zen, horietatik nahi nuke.

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, zama orokorretarako ekarpen gisa Estatuko Administrazioari ordaindu beharreko zenbatekoa, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan agertzen dena, negoziatzeko prozesuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, zama orokorretarako ekarpen gisa Estatuko Administrazioari ordaindu beharreko zenbatekoa, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan agertzen dena, negoziatzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2013ko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren 2014rako ekitaldirako luzatutako 2012ko aurrekontu orokorrak betetzeko arauak. Bederatzigarren puntuan hauxe ezartzen da: "Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak berehala aztertu eta negoziatuko du zer zenbateko ordaindu behar dion Estatuko Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa, zeina Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan jasotzen baita eta 2014rako gutxienez ere 70 milioi euroko gastu-murrizketa ekarri behar baitu luzatutako aurrekontuan kontzeptu horrengatik aurreikusitako zenbatekoan. Hiru hilabete behin, nego-

ziazioaren egoerari buruzko jarraipen-txostena igorriko zaio Gobernuari, aurreikusten den emaitza eta 2014ko aurrekontu-gastuan izan lezakeen eragina adieraziko duena”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

• Zertan da negoziazio prozesua? Negoziarioari buruzko jarraipen-txostena, erabaki horretan aurreikusitakoa, igortzea eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Estatuko Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa ordaindu beharreko zenbatekoa berrikusi eta negoziatzeagatik 2014ko gastua murrizteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Estatuko Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa ordaindu beharreko zenbatekoa berrikusi eta negoziatzeagatik 2014ko gastua murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2013ko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren 2014rako ekitaldirako luzatutako 2012ko aurrekontu orokorrak betetzeko arauak. Bederatzigarren puntuan hauxe ezartzen da: "Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak berehala aztertu eta negoziatuko du zer zenbateko ordaindu behar dion Estatuko Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa, zeina Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan jasotzen baita eta 2014rako gutxienez ere 70 milioi euroko gastu-murrizketa ekarri behar baitu luzatutako aurrekontuan kontzeptu horrengatik aurreikusitako zenbatekoan".

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

• Zer kalkulutan oinarritzen da kontzeptu honetako 70 milioiko gastu-murrizketa hori?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Tuterako eskualdean osasun-garraioaren zerbitzua emateari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako eskualdean osasun-garraioaren zerbitzua emateari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkez-

tu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2014ko martxoaren 14an ireki ziren Tuterako eta Lizarra-Tafallako eskualdeetako osasun-garraioaren zerbitzua 2014ko lehen seihilekoan emateko laguntza-kontratuaren lizitazioarako eskaintzak (deialdia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egina zen).

Hona galderak:

- Egia al da azkenean eman gabe gelditu dela Tuterako osasun-barrutirako osasun-garraioaren zerbitzua emateko lizitazioa?

- Baiezkoan, eman gabe gelditze horrek zer ondorio izanen lituzke Tuterako osasun-barrutirako osasun-garraioaren zerbitzua emateari dagokionez? Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bermatuta al dauka eskualde horretan oinarritako zerbitzu hori ematen jarraitzea? Nola?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, enpleguko politika aktiboetarako bideratzen den finantziarioari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, enpleguko politika aktiboetarako bideratzen den finantziarioari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 3an informatu zuenez, Nafarroako Gobernuaren estimazioen arabera 13,5 milioi euro ingurukoa izanen da 2014an Estatutik enplegurako politika aktiboetarako helduko den finantzaketa.

2014rako aurreikusitako lau jarduketa-ildo nagusiak ere xehakatu zituen, ildo bakoitzeko jarduketa nagusien zehaztasunak emanda.

Halaber, jarduketa batzuen kasuan Europaren finantzaketa ere badagoela adierazi zen.

Hona galderak:

– Estatutik datozen 13,5 milioiez gain, Europa-ko funtsen zer finantzaketa-bolumen egonen da enplegurako politika aktiboetarako, aurreikuspenen arabera?

– Finantzaketa horrek izaera finalista izan ohi duenez eta ezin denez beste helburu batera bideratu, García Malo andreak azalduetako zer ekintza zehaztetara dago bideratuta, eta zein dira ezarritako kofinantzaketa-ehunekoak?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, CEN, UGT eta CCOO 2014ko Enplegu Planaren kudeaketa- eta erabakitze-organoko partaide izateak sortzen duen interes-gatazkari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, CEN, UGT eta CCOO 2014ko Enplegu Planaren kudeaketa- eta erabakitze-organoko partaide izateak sortzen duen interes-gatazkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Apirilaren 3an Parlamentuan egindako agerraldi batean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak zehaztasunez azaldu ditu 2014rako Enplegu Planaren luzapenean aurreikusitako jarduketako ildoak.

Bidenabar adierazi du Gobernuak aintzat hartu dituela prestakuntzara bideratutako funts publiko-

en kudeaketari buruz Kontuen Ganberak egin duen eta bolo-bolo ibili den txostenean jasotako gomendio guztiak.

Txosten horretan jasotako kezketako bat da interes-gatazka bat sor litekeela CEN, UGT eta CCOO aldi berean izateagatik planaren kudeaketa- eta erabakitze-organoko kide eta, gainera, prestakuntza-programak garatzeko diru-laguntzen onuradun.

Areago: txostenean orobat jasotzen da ezen, erabakitze-organoetako partaide izateaz gain, CENek, UGTk eta CCOOk beto-ahalmena ere badutela, ezarritako arauak partaide guztiak ados egotea exijitzen dutelako, erabakiak hartu ahal izateko.

Parlamentari honek bere garaian proposatu zuen, behar adinako babesik jaso ez zuen mozio batean, eta ereduaren eztabaidan sartu gabe, gutxienez ere arau horiek alda zitezten, halako moduan non, adostasuna eta ahobatezkotasuna ezinezkoak diren kasuan, Gobernuak bere irizpidea ezartzeko ahalmena izanen bailuke.

Hona galdera:

Gobernuak aztertu al du ekimenen bat hartzeko aukera, CEN, UGT eta CCOO diru-laguntzen onuradun eta aldi berean erabakiak aho batez hartu behar dituen erabakitze-organo bateko kide izateak eragin lezakeen interes-gatazka hori murrizteko?

Iruñean, 2014ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola